ADRA

Revista Intercultural

KOLOREZ KOLORE!

Kultura Arteko Aldizkaria

5

Kolorez Kolore aldizkariak Arabako herritarren kultura artekotasuna eta berdintasuna sustatzea du helburu, herritarrak sentsibilizatuz eta kultura bakoitzaren inguruko estereotipoak eta aurreiritziak murriztuz.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Egilea: ADRA Fundazioa, 2016

Lorenzo Prestamero kalea, 3

01013 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945.25.75.75 / 692.611.113

http://www.adra-es.org

kolorezkolore@adra-es.org

www.facebook.com/Kolorez-Kolore-Fundación-ADRA

Edukia eta diseinua: **Janire Zatón**

Itzulpena: **Yaiza Cuesta**

Koordinatzailea: **Sandra Llamas**

Kolorez Kolore Arabako Foru Aldundiko Kultura arteko Sailak diruz lagundutako aldizkaria da. Arabako herritarren kultura artekotasuna eta berdintasuna sustatzea du helburu, herritarrak sentsibilizatuz eta kultura bakoitzaren inguruko estereotipoak eta aurreiritziak murriztuz.

Honen diru-laguntzaz:

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

AURKIBIDEA

“Ezagutu zure gaur egungo hiria eta…”……4-5

“…eta erakutsi iezaguzu zure jatorrizko herri edo hiria”…….....6-7

3. sektorearekin erlazioa duten 2 erakunde edo programaren zabalkuntza…8-9

Gizarte-gaiei buruzko berriak……..10-11

Gezurta ditzagun zurrumurruak ……..12-13

Hizkuntzak ikasten……..14

Kultura arteko sukalde liburua……..15

Genero berdintasuna……..16-17

Kultura arteko istorioak……..18

Migrazio prozesua……..19-20

“EZAGUTU ZURE GAUR EGUNGO HERRI EDO HIRIA ETA…

Elkarrizketa. Silbia Grijalba, diseinatzaile grafikoa eta IKT dinamizatzailea.

Zer herri edo hiritan bizi zara? Nola definituko zenuke?

Lapuebla de Labarca ardogintzarekin lotura handia duen herri txikia da. Bizitzeko eremurik onena da.

Zer alde on eta txar nabarmenduko zenituzke?

Alde onen artean, honako hauek aipatuko nituzke: Lapuebla de Labarcako ardoa munduko onena dela, eta herri txiki eta erosoa dela.

Alde txarren artean, aipatzekoa da ia-ia Araba amaitzen den lekuan gaudela, eta, beraz, Gasteiz urruti daukagula. Batzuen ustez, ez gara ez hemengoak ez hangoak.

Nola definituko zenuke Arabako kultura?

Ez nuke esango Araban kultura jakin bat dagoenik; nire ustez, oro har, euskal kultura bat dago. Horrez gain, alde handia dago hirietako eta herrietako kulturaren artean.

Zein da gaur egun Arabako gizarte- eta ekonomia-egoera?

Araba nekazaritza-inguru bat denez, urtaroaren arabera, lan gutxiago edo gehiago egoten da, Arabako Errioxan bereziki.

Zure ustez, kultura arteko probintzia bat al da Araba? Zergatik?

Bai, gure zonaldean (Arabako Errioxan) batez ere. Asko ugaritu dira beste nazionalitate batzuetako biztanleak, eta elkarbizitza ona da.

Zure herri edo hirian gizarte-baliabide nahikoa dagoela iruditzen al zaizu?

Nire ustez, baliabideak erdi mailakoak dira.

Zer iruditzen zaizu Arabako kultura-eskaintza?

Gasteizen edo herrietan bizi, izugarri aldatzen da egoera.

Herrietan, ez dugu eskuragarri hiriburuko kultura-maila bera; izan ere, Arabako lurralde historikoko herrietan, oso biztanle gutxi bizi dira. Asko gustatuko litzaidake esatea kultura leku guztietara iristen dela, baina ez da horrela.

Herriko/hiriko zer txoko gustatzen zaizu gehien?

Ebroko Balkoia. Udazkenean, mahastien kolore zoragarriak ikus daitezke handik.

… ETA ERAKUTSI IEZAGUZU ZURE JATORRIZKO HERRI/HIRIA”

Elkarrizketa. Armando Luis Luna Villalba, Gasteizen bizi den venezuelarra.

Zein da zure jatorrizko herrialdea? Eta hiria?

Venezuelakoa naiz, Caracasekoa.

Bizi zinen eremuko zer alderdi nabarmenduko zenuke?

Hiriaren bizitasuna eta jendearen kalitatea eta berotasuna nabarmenduko nituzke. Oso ondo hartzen zaituzte, jendea oso adiskidetsua da.

Han bizi zinenean, zer gustatzen zitzaizun gehien?

Janaria.

Zer esan ahal diguzu ohitura eta jai tipikoei buruz?

Venezuelako jai gehienak erlijioarekin lotuta daude. Esate baterako, azaroaren 18a oso egun berezia da Venezuelan, Chiquinquirá birjinaren (guk *chinita de Maracaibo* esaten diogu) eguna baita. Maracaibo Venezuelako mendebaldean dagoen hiri bat da; estatu batean (hemen *probintzia* deritzogunean) dago. Birjina horrek fededun asko ditu, eta, hori dela eta, azaroaren 18an Venezuelako Gabonak hasten direla esan dezakegu, jai hori ospatzen delako.

Birjina aldare batean dago berez, baina, festa heldu baino astebete lehenago, handik jaisten dute, herritarren esku egoteko. Azaroaren 18an meza bat antolatzen da haren omenean, eta jendez betetzen da, Andra Mari Zuriaren plaza Zeledon jaisten denean bezala, baina halako hiru. Festa egiten da, gaitak eta hango musika tipikoa entzuten dira, Gabonetako jakiak prestatzen dira, etab.

Ekialdean, berriz, irailean egiten da festa, Virgen del Valle delakoaren egunean. Eliza haran batean dagoelako esaten diote horrela. Jai hori irailean denez, Gabonak ez daude hain gertu, baina, hala eta guztiz ere, herritarrak Gabonez gozatzen hasten dira.

Eta gastronomiari buruz, zer esan ahal diguzu?

Has gaitezen Gabonetako jakiekin. *Hallaca* jaki tipiko bat da. Ohikoena Gabonetan prestatzea da, baina urte osoan jaten da. *Hallaca* orez egindako opil moduko bat da; barruan, gisatu bat du (oilaskoa, haragia, arrautza, patata…). Platano-hostoetan bildu, uretan egosi, eta zerbitzatu egiten da.

Badago oso berezia den beste jaki bat ere: antxumea kokoan. Antxumearen haragiari kokoz egindako saltsa bat botatzen zaio. Horrez gain, lapak ditugu: animalia txiki bat da lapa, eta gutxi egositako patatekin, barazkiekin, arrozarekin eta bananarekin jaten den.

Halaber, arrain-mota ugariz egindako jakiak ere oso tipikoak dira. Izan ere, Venezuelako ekialdean kostalde handia dago.

Askoz jaki gehiago aipa ditzaket, esate baterako, txutxu-pastela, arepak, katxapak, enpanadak, etab.

Desberdintasun asko al daude hango eta hemengo gastronomiaren artean?

Jakina, sekulako aldea dago bi gastronomien artean.

Zertan lan egiten zenuen zure herrialdean?

Abokatua naiz, baina erretiratua nago jada.

Hemen zure lanbide ohiarekin lotutako zerbait ari al zara egiten? Non?

Bai. Boluntarioa naiz hainbat erakundetan, Gurutze Gorrian, esaterako. Aholkularitza juridikoan aritzen naiz: immigrazioarekin, nazionalitatea lortzeko prozesuarekin, eta atzerritartasunarekin lotutako gai askotan laguntzen dut.

Zer iruditzen zaizu Gasteiz? Eta bertako jendea?

Gasteiz oso hiri polita da. Espainiako beste leku batzuetan kopiatu beharko litzatekeen hiri bat da. Beste hiri batzuen eredu izateko sortu zen Gasteiz, eta berdeguneak ditu nonahi.

Gasteiztarrei dagokienez, ohartu naiz gaur egun lehen baino irekiagoak direla. Lehen, jendea itxiagoa zen. Gazteak areagotu ahala, sektore horren pentsamoldeak irekitasun horretan zerikusia izan duela suposatzen dut.

Bide Bidean, bidezko merkataritza denda

Gasteizko **Bide Bidean bidezko merkataritza denda** orain dela urtebete sortu zen **Alboan, Egibide, Caritas eta Elizbarrutietako Misioaken** lankidetzari esker. Foru kaleko 16. zenbakian kokatuta dago, eta astelehenetik ostiralera egoten da irekita, 10:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 20:00etara.

"**Bidezko merkataritzak** iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen artean merkataritza-harreman orekatuak izatea defendatzen du, eta ekoizleekiko eta beren inguruarekiko errespetua bermatzea du helburu", diote Bide Bidean proiektuaren bultzatzaileek. Foru kaleko 16. zenbakian kokatutako lokalean, besteak beste, honako **produktu** hauek daude: azukrea, kafea, tea, infusioak, gailetak, txokolatea, kakaoa, marmeladak, snack gaziak, gozokiak, zukuak, "bai eta urte osoan zehar erregalatzeko moduko opariak ere".

Bide Bidean ez da bidezko merkataritzako denda bat soilik; askoz proiektu zabalagoa da, eta helburu hauek ditu:

- Nazioarteko merkataritzak iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko harremanetan eragiten dituen ondorioei buruz sentsibilizatzea helburu duten ekintzak bultzatzea.
- Hainbat sentsibilizazio-ekintza eta prestakuntza antolatzea kontsumo arduratsu, ekologiko eta lokala lortze aldera.
- Bidezko merkataritzako produktuak, produktu ekologikoak eta produktu lokalak leku apropos batean saltzea.
- Boluntariotzaren bitartez (norbanakoak zein taldeak), funtzionamendu parte-hartzailea sustatzea.
- Gizarte-ekonomia, ekonomia alternatiboa eta banku jarduera etikoa sustatzen duten plataformetan eta guneetan parte hartzea.

ARABAKO GAZTEEN ARTEKO GENERO-INDARKERIAREN AURKA SENTSIBILIZATZEKO KANPAINA

HELBURUA: gazteen arteko harremanetan indarkeria prebenitzeari buruzko hausnarketa sustatzea, beren eguneroko erlazioetan dituzten jarrera sexistak identifikatuz.

Gazteak tartean sartzea da helburua; horretarako, proposamena haien espazioetara egokitu da, proposatutako egoerak argi eta garbi identifika ditzaten.

Helburua hauxe da: genero ikuspegi batetik indarkeria sexistaren prebentzioan esku hartzea. Horretarako, ezinbestekoa da harremanetan nagusitu beharreko balioak lantzea: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, autonomia pertsonala, nork bere ekintzekiko erantzukizuna, eta beste pertsonak eta, batik bat, gero eta anitzagoa den errealitatea osatzen duten desberdintasunak, errespetatzea. Hori guztia lortzeko, funtsezkoa da indarkeriara jo gabe arazoei eta gatazkei aurre egiteko gaitasunak garatzea.

Etapa berri honetan, proposatutako egoerak hartzaileen ingurura ahalik gehien hurbiltzen saiatuko gara, adibide horiek erraz identifika ditzaten. Horrenbestez, esku-hartzeak egiteko gunerik egokiena ikasgela da; izan ere, gazteek han jaso ohi dute prestakuntza, hau da, ikasgela gazteen egunerokotasunaren zati bat da. Modu horretan, gazteentzat ahalik kontzeptu ezagunenak eta errealenak erabiliko dira.

Aurreko etapan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ezaren inguruan hausnartu genuen. Berdintasunik eza indarkeria sexistaren kausa nagusia dela azaldu genuen, desparekotasun hori indartzen duten eguneroko egoera edo “mikromatxismo” ugari daudela nabarmendu genuen, eta indarkeriari aurre egiteko emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa ezinbestekoa dela azpimarratu genuen. Oraingoan, aurreko lerroekin jarraitu, eta, horrez gain, eskola-jazarpenarekin lotutako bi alderdi hauei buruz hausnartzeko ekintza jakin batzuk abian jarriko ditugu:

*Alde batetik, neska-mutilek, kultura hegemonikokoak ez izateagatik, beste hizkuntza batean hitz egiteagatik edota ezaugarri kultural eta janzkera jakin batzuk (hijaba) izateagatik, ikastetxean pairatutako jazarpen, tratu txar, diskriminazio eta indarkeria arrazistari buruz hausnartuko dugu.

*Bestetik, sexu-orientazioa edo genero-identitatea dela eta pairatutako eskola-jazarpenari (bullying homofobiko edo transfobiko ere esaten zaio) buruz hausnartuko dugu. Eskola-jazarpen horrek barne hartzen ditu ikaskideen jokaera ugari, hala nola irainak, bazterkeria, mehatxuak eta erasoak. Neskek eta mutilek berdin-berdin pairatzen dituzte jokaera horiek. Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Estatuko Federazioaren (FELGTB) arabera, mutil gay edo bisexualen % 60k pairatzen du jazarpen-mota hori, eta horien % 43k suizidatzea pentsatzen dute. Hori dela eta, egokia iruditzen zaigu alderdi horri espezifikoki heltzea, babesa, bisibilizazioa eta sostengua emateko, eta bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo jokaera diskriminatzaileak saihesteko.

Haiek Gu dira

Gutako inork ez du pentsatzen muga baten gainean bizi denik, baina horixe ari gara egiten.

"Ez-lekuak mapetan daude, nahiz eta irudikaturik ez ageri" (Andrew Neel).

Irudi bera errepikatzen da goizero. Langileak zalapartaka eta presaka irteten dira metro-bagoietatik irteerara heldu nahian. Bidean, **asper-asper eginda afrikar baten dokumentazioa aztertzen ari den polizia-bikote bat (kaleko jantzian doaz)** saihestu behar dute. Beste etorkin batzuk alde batean geldiarazi dituzte, eta haien txanda noiz iritsiko zain daude. Une batez, zirkulu horretan dauden pertsonen begirada ordura arte bagoi berean lanera zihoazen pertsonenarekin gurutzatzen da. Bidaiariak nasatik desagertzen dira berehala, eszena hori atzean utzi eta kalera iritsi baino lehen ahazten dute.

Gutako inork ez du pentsatzen muga baten gainean bizi denik baina horixe ari gara egiten, hain zuzen ere. Muga likidoek, ikusezinek, definitzen dituzte Ez-lekuak eta horietako biztanleak. **Espazio fisiko horietan, eskubideak ukatzen dira**; salbuespen-egoera txiki horietan, denak balio du, pertsona hori ez delako inoiz gonbidatua izan. Edo, besterik gabe, ez delako inoiz izan. Espazio ezagunak dira guretzat. Beste garai batean –eta oraindik ere leku gehiegitan– sexuak, azalaren koloreak edota gizarte-klaseak muga gaindiezinak ezarri zituzten Haien eta Gure artean. **Gaur egun pentsaezina iruditzen zaiguna egunero gertatzen zen beste garai batean**, gure arbasoek beren auzokoen morrontza eta beren emakume eta alaben infantilizazio politikoa onartu zituzten garaian. Garai hartan, normala iruditzen zitzaigun homosexualak sendategi batean sartzea, edota zurientzako espaloiak egitea.

Harrigarria da egoera horietan zentzugabea iruditzen zaiguna onargarritzat jotzea desberdintasuna nazionalitateak eragindako administrazio-egoerak sortzen duenean. Egunero **biztanle atzerritarrak jazarpen instituzionalizatuaren mende jartzen dituen sistema Haiek Gu ez direlako ziurtasunean oinarritzen da**. Horrela bakarrik uler litezke egoera hauek: ama bat bermerik gabe espetxeratzea, arraza-kontrolen tortura sotila, osasunerako eskubidea ukatzea, babes instituzional arrotza. Haiek ez izateak bakarrik azaldu dezake egunero *apartheid* egokitu honen edo gizarte honi eusten dion hemeretzi garren mendeko malenkonia honen aurka ez altxatzea. Gizarte honetan, lerro ikusezin batek banatzen ditu gizakiak eta mamuak, eta, lerro horrek pertsona errukiorrak, bihozgabeak edo, besterik gabe, nahasten ez diren pertsonak izaten uzten digu, baina ez digu uzten, inola ere, gauza bera izaten.

Hortaz, ez da errukia Ez-lekuak desagerraraziko dituena, asimilazioa baizik. **Haiek Gu direlako ziurtasunak ekarriko ditu** gaur egun pentsaezinak iruditzen zaizkigun **konponbide politiko eta administratiboak**; beste aukerak onartezinak irudituko zaizkigulako besterik ez bada ere. Gerra luzea izango da, porrotez beterikoa, harik eta (guk beharbada ikusiko ez dugun) garaipena lortu arte. Baina **beste Ez-leku batzuetan egon garenez, badakigu horietatik ihes egin daitekeela**. Bidea hemen eta orain hasten da.

Gonzalo Fanjul, 2016ko abenduaren 3a

GEZURTA DITZAGUN ZURRUMURRUAK

Matxistagoak dira

“Zozoak beleari…”

% 68,5ek nazionalitate espainiarra dute

2013. urtean, 54 erasotzaile izan ziren. Horietatik guztietatik, 37k (% 68,5ek) nazionalitate espainiarra zuten; gainerako 17ak (%31,5) atzerritarrak ziren. Gaur egun, gizarte guztiek diskriminatzen dituzte emakumeak. Danimarkako emakumeen % 52k indarkeria fisikoa edo sexuala pairatu duela dio. Emakumeak erasotzen eta hiltzen dituzten etorkinen matxismoa eta emakumeak erasotzen eta hiltzen dituzten autoktonoen matxismoa berdin-berdinak dira. Ez dira desberdinak.

Haiek bai matxistak. Eta gu?

Pertsonak ez gara matxistak jaiotzez, bizitzan zehar bihurtzen gara matxista. Matxismoa eraikuntza kulturala da. Gizarteek rol maskulinoa ulertzeko duten modua, horixe da matxismoa; emakumeak gizonen mende daudela dioen mitoan eta gizonek nagusitasuna dutelako ustean oinarritzen da ikusmolde hori.

Bestalde, kultura guztiak matxistak direla onartu behar dugu. Kultura guztiek baztertzen dituzte emakumeak, eta, beraz, ezin dugu beste herrialde batzuetatik

datozen pertsonen kultura, besterik gabe, matxistatzat hartu. Lehenik eta behin, geure kulturari erreparatu beharko genioke.

Batzuetan, desparekotasun-egoerak agerikoagoak izan daitezke hainbat faktoreren eraginez, hala nola komunitate etniko jakin batekoa izateagatik edo azalaren kolore desberdina izateagatik. Hala ere, kontuan hartu behar dugu tratu txarrak hartzen dituen emakume bakoitzak bere gizarte-mailatik eta etniatik haratago doazen istorio eta bizipen pertsonal jakin batzuk dituela atzean.

Badirudi etorkinen jokabideaz ari garenean soilik hartzen dugula matxismoa gizarte-arazotzat. Ez dago, gaur egun, matxismorik gabeko herrialderik edo kulturarik.

Emakumeen eta gizonen arteko harremanak ulertzeko dugun moduarekin bat ez datozen jarrera matxistak ikusten ditugu maiz. Ez gara ohartzen, ordea, gure harremanak ere ez datozela bat berdintasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko bereizkeriarik ezaren alorrean aurreratuago dauden beste herrialde batzuetan dituzten erlazioekin.

Emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunean oinarritutako gizarte-egituraren ondorio da genero-indarkeria. Emakumeak gizonen mendeko behe-mailako pertsonatzat hartzen dituen ideia soziokulturalarekin lotuta dago indarkeria. Horrek desparekotasun- eta bereizkeria-egoerarekin erlazionatutako ondorio larriak eragiten ditu.

Genero-indarkeria ezartzen duten erasotzaileak edozein nazionalitatetakoak izan daitezke. 2014an genero-indarkeriagatik hildako 10 biktimetatik 7k nazionalitate espainiarreko erasotzaileak zituzten.

Biztanle atzerritarrak iristeak ez du ekarri genero-indarkeriagatik hildako biktimen kopurua handitzea. 2003tik 2014ra bitartean, biztanle atzerritarren ehunekoa % 6tik % 10,7ra igo da. Hala ere, genero-indarkeriagatik hildako biktimen kopurua 71tik 54ra jaitsi da urte horietan.

Horrez gain, aipatutako ikusmolde soziokulturala ez da aldatzen estatu edo kultura batetik bestera. Egoera horiek arautzen dituzten legerik ez egoteak emakume etorkinen (egoera erregularrean nahiz irregularrean egon) zaurgarritasuna areagotu eta iraunarazten du.

Hainbat lege promulgatu dira (1/2004 Lege Organikoa, adibidez) edozein genero-indarkeriaren biktimaren (bereizketarik gabe) eskubideak bermatzeko. Gainera, instrukzio baten arabera (14/2005 Instrukzioa), emakume etorkinek salaketa jarri behar dute zenbait baliabide erabiltzeko eskubidea izateko; baldintza hori ez zaie, ordea, nazionalitate espainiarreko emakumeei eskatzen.

Atal hau egiteko, Zurrumurrurik ez webgunean oinarritu gara
http://zurrumurrurikez.eus

El empleo Lana / العمل / Work

Estoy interesado/a en el puesto de trabajo de administrativo/a. Administrari lanpostuan interesatuta nago.	أنا مهتم بالعمل في الوظيفة الإدارية I'm interested in the administrative position.
¿Podría dejarle mi curriculum vitae? Nire curriculum vitae utzi ahal dizut?	هل يمكن أن أترك سيرتي الذاتية ؟ Could I give you my CV?
Tengo cinco años de experiencia en hostelería. Bost urteko eskarmentua dut ostalaritzan.	لدي خمس سنوات من الخبرة في الفندقة . I have five years experience in the restaurant sector.
Tengo un nivel medio/alto de inglés/francés. Ingeles/frantses maila ertaina/altua dut.	لدي مستوى متوسط/عالي في اللغة الإنجليزية / الفرنسية . I have an intermediate/advanced level of English/French.
Tengo conocimientos de informática. Informatika ezagutzak ditut.	لدي معارف بالحاسوب . I have computer knowledge.
Tengo formación en el ámbito de la enseñanza. Hezkuntza arloan prestakuntza dut.	لدي تكوين في مجال التعليم . I have training in the field of education.
Me podría incorporar de forma inmediata. Berehala hasi naiteke lanean.	يمكنني الالتحاق على الفور. I could start work immediately.
Tengo carnet de conducir. Gidabaimena dut.	لدي رخصة السياقة . I have a driving license.

Pertenecen a GOAZEN Diccionario del día a día, elaborado por Fundación ADRA para el Programa de Acogida para la integración social de la población inmigrante

Alberjinia-eltzeko tradizionala *ALJERIA*

4 LAGUNENTZAKO OSAGAIAK

- 2 alberjinia
- 200 g garbantzu
- 1 tipula
- 3 baratxuri atal
- Kanela, gatza eta piperbeltza
- 2 arrautza
- 200 g oilasko
- 80 ml oliba-olio

NOLA EGIN

Lehenik eta behin, ebaki alberjiniak xerratan, eta utzi gatz-uretan 2 orduz. Ondoren, frijitu gorritu arte, atera eta erreserbatu.

Bestalde, txikitu baratxuriak eta tipula, eta prestatu olio eta gatz pixka batekin. Poxatuta daudenean, gehitu oilaskoa, garbantzuak eta espeziak. Oilaskoa gorrituta dagoenean, gehitu litro erdi ur, eta utzi egosten 20 minutuz.

Azkenik, estali alberjiniaz eta bota arrautza irabiatua gainetik.

Kultura arteko Sukalde Liburutik hartuta. Sukalde Liburu hori Etorkinak gizarteratzeko harrera programaren baitan egin zuen ADRAk.

GENERO BERDINTASUNA

Caddy Adzuba kazetari kongotarra, Kazetaritzako Nazioarteko III. Julio Anguita Parrado Sariaren irabazlea.

EL ESCORIAL.- Emakume mutilatuak, kolpekatuak, duintasunik gabe utzi dituzten emakumeak. Kongoko Errepublika Demokratikoan indarrean den gatazkan, matxinoek emakumeak bortxatu eta sexualki torturatzen dituzte. Ezarritako tortura eraso fisikoetatik haratago doa, ordea. Gizartea menderatzeko eta etsaiei zauri sendaezinak eragiteko modu bat da. “Emakumearen gorputzaren gain egindako gerra bat da”, salatu zuen **Caddy Adzuba** kongotarrak. Adzubak *Konkordiaren Asturiasko Printzea Saria* jaso zuen 2014an egindako ekintzaile eta kazetari lanagatik, Complutense Unibertsitateak El Escorialen egiten dituen udako ikastaroetan emakumeen eskubideak defendatzeagatik, alegia.

Kazetariaren begiek bere herrialdean (Afrikako herrialderik handienetan bigarrena) ikusitako ankerkeriak islatzen dituzte; Kongon bi gerra piztu dira azken hogei urteotan, eta gizartea erabat suntsitzea ekarri dute. Kongoko ekialdean, matxinoek krimen izugarriak egiten eta herrixkak suntsitzen jarraitzen duten eremuan, dago, hain zuzen ere, Komunikabideetako Emakumeen Elkartea; Adzuba elkarte horren partaide da. “Bortxatzea ez da emakume bat sexu-harremanak izatera behartzea soilik, **feminizidio** bat da”, esan zuen kazetariak.

Gatazka hori Aro Modernoan izandako **genozidiorik handienetako bat**, eta haren atzean dauden istorio kontaezinak agerian geratzen dira Adzubak emakumeek eta haurrek jasandako erasoen argazkiak erakusten dituenean. Irudi horietan ikus daiteke matxinoek plastikozko botila urtuak eta bizar-xaflak erabiltzen dituztela emakumeak sexualki erasotzeko, bai eta haurtxoak hiltzea, zoritxarrez, ohikoa dela.

“Emakume bat orbandu eta zokoratzen dutenean, gizarteak baztertu egiten du, baita emakumearen senarrak berak ere”, azaldu zuen ekintzaileak. Hori gerta ez dadin, **Denis Mukwege** ginekologo kongotarrak (Sajarov saria irabazi zuen iaz) Elkarteari laguntzen dio emakumeak berrosatuz. “Emakumeen gorputza gudu-zelai bat da”, salatu zuen Adzubak.

Hitzaldian aipatu zuen kasurik zirraragarrienetako bat hauxe da: **Janet**, 32 urteko emakume bat, bere senarrarekin eta bere lau seme-alabekin bizi zen. Matxinoek haien herrixka eraso zuten. Janeten senarra hil eta emakumea eta lau seme-alabak basora eraman zituzten. Janet zuhaitz batera lotu eta torturatu egin zuten; zigarretak haren gorputzaren kontra itzali zituzten eta bortxatu egin zuten. “Egun batzuk beranduago, zuhaitzetik askatu eta haragia eman zioten jateko. Seme-alabak ikusi nahi zituen Janetek, baina ez zioten utzi. Azkenean, eman zioten haragia seme-alabena zela esan zioten. Emakumeak ez zuen onartzen, eta, orduan, seme-alaben buruak ekarri zizkioten zaku batean”, kontatu zuen Adzubak, eta entzuleengan ikara eragin zuen.

Tamalez, ez da kasu bakana: “Kongon, ia egunero gertatzen dira horrelakoak”. Beste egun batean, Elkarteko bi kide hil zituzten. Beste bi kide, berriz, bortxatu egin zituzten eta ez ziren bizirik atera. “Errepideak oso egoera txarrean daude eta, batzuetan, emakumeak ez dira ospitalera garaiz iristen”, adierazi zuen ekintzaileak **bere kideen heriotzari buruz**.

Mendebaldearen hipokrisia

Adzubaren ustez, hori guztia ez litzateke gertatuko matxinoek armarik ez balute. “Nor dira basatiak, krimenak egiten dituztenak ala armak ematen dizkietenak? Zuek smartphoneak izan ditzazuen ari gara hiltzen”, esan zuen kazetariak, aretoan zeudenei hatzaz seinalatuz. **“Emakumeak segundo oro ari dira hiltzen aurrerapen teknologikoak direla eta”.**

Kongotarraren esanetan, bai Kongotik bai Kolonbiatik datorren **koltanak** enpresa multinazionalen interesa pizten du, eta horiek armak finantzatu eta gerra eragiten dute. “Ez da Afrikako gerra bat, europarrak eta amerikarrak ari dira afrikarrak hiltzen”, nabarmendu zuen.

Adzubaren arabera, okerrena da biztanle babesgabe horiek Kongotik atera eta, multinazionalen interesek eragindako gatazka saiheste aldera, itsasoa zeharkatzen dutenean, “etorkin klandestino” esaten dietela. “Gure herrialdean gerra ezartzen dute eta ez dute guk **izugarrikeria horretatik ihes egiterik nahi**”, kritikatu zuen; haren esanetan, Mendebaldeko erakundeak hiprokita hutsak dira.

“Munduko Bankuak dirua bidaltzen digu eta erakunde askok laguntza ematen digute; lapurtu digutena itzultzen ari dira, besterik ez”, esan zuen Adzubak. Kongotar askok, Adzubak bezala, bakea besterik ez dute nahi. Jendea haien herrialdeko egoerari buruz kontzientziatu nahi dute. **“Bizitzea besterik ez dugu eskatzen”**.

Alicia Ibarra 2016. 11.11

KULTURA ARTEKO ISTORIOAK



BIZKLETA BERDEA

Wadjadak hamar urte ditu eta oso gizarte tradizionalean bizi da. Gizarte horretan zenbait gauza egitea debekatuta ditu, adibidez, bizikletan ibiltzea. Baina neskatila dibertigarria eta ekintzailea da, eta baimenduta eta debekatuta dituen gauzen arteko mugan jokatzen du beti. Wadjdak bizikleta bat nahi du, Abdullah lagunarekin lasterketa bat egin ahal izateko, baina amak ez dio uzten, bizikletak arriskutsuak baitira neska baten duintasunerako.

http://aulaintercultural.org/la-bicicleta-verde/

SAIDEN BIDAIA

Said Gibraltarko itsasartea zeharkatzen duen haur marokoarra da. Bestaldera (aukeren herrialdera) iristean, ohartzen da mundua ez dela kontatu zioten bezain ederra.

https://www.youtube.com/watch?v=gDyNPNBfNSQ

AFRIKA ERA POSITIBOAN

Hedabideetan erakusten denaren arabera, Afrika hondamendiz eta zoritxarrez beteta dago. Errealitatea askoz ere aberatsagoa eta positiboagoa da. Ikasi Afrika ezagutzen.

http://www.youtube.com/watch?v=TaqIk4XZdbg

MIGRAZIO-PROZESUA

Houria Kbabou Zaharraz Harro auzoko jaietan laguntzen. 2016ko uztaila.

Nongoa zara? Zenbat denbora daramazu Gasteizen bizitzen?

El Jadida izeneko hiri batekoa naiz. Han bizi izan nintzen nerabezaroan. Gero, Casablancara joan nintzen bizitzera lan kontuengatik. Orain dela 7 urtetik, Gasteizen bizi naiz.

Zure herrialdean, zertan egiten zenuen lan?

Marokon bizi nintzenean, ez nintzen oso ikasle ona, eta ez nuen ikasteko aukera handirik izan, familia ugari batekoa naizelako. Ikastetxe publiko batean ikasi nuen; neska-mutil gehiegi ginen klasean, eta, lan egin beharrean, distraitu eta marrazten pasatzen nuen denbora. Orduantxe deskubritu nuen neure bokazioa: artea eta pintura.

Casablancan hasi zen nire garapen profesionala, artelan-denda batean. Han, nire lankide Fatimaren lana ikusi, eta beira gaineko margolanak egiteari ekin nion.

Zergatik erabaki zenuen emigratzea?

Nire lanbidea zela eta, ingurukoek Europara joatera animatu ninduten, profesionalki hobetzeko; nire lanean sinesten zuten, eta aukerak izango nituela uste zuten. Nik jakin, ezagutu, ikasi behar dut. Hobetzea dut helburu, lurralde honetan dauden emakume baliagarrien ehunekoa handitzeko. Nire ekarpena positiboa izan litekeela uste nuen, eta, horrez gain, Marokon hobetzeko aukerarik ez nuela sinetsita nengoen.

Gasteizera iristean, lortu al zenuen lan bera egiten jarraitzea?

Oraingoz ez dut lortu nire lanbidearekin lotutako lan ordaindurik egitea. Hona heldu eta 9 hilabetera, Gasteizko Hormairudien Ibilbidea programan parte hartzeko aukera izan nuen. Errementari kaleko *Eskuz esku* hormairudia egiten lagundu nuen.

Houria bere erakusketaren bisitaldi gidatua egiten. HHE, 2015eko abendua.

Irakasle boluntarioa ere izan naiz "Beira gaineko artea" izeneko 3 tailerretan. Gasteizko 2 gizarte-erakundetan eman ditut tailer horiek, eta 15 pertsonako taldeei nire ezagutzak irakatsi dizkiet. Halaber, 25 margolaneko erakusketa bat egin dut Gasteizko Gizarte Etxe guztietan, bai eta Paulo Freire Helduen Eskolan ere.

Egibide ikastetxean nire lanbideari buruzko aurkezpena egin nuen, eta beira gaineko pintura-teknika ezagutzera eman nuen.

Nolanahi ere, badakit lankidetza horiek nire lan-esperientzia osatzen dutela, eta egun batean profesionalki egingo dudala lan.

Denboran atzera egiterik izango bazenu, Araban bizitzeko erabakia hartuko al zenuke berriz ere?

Inoiz ez naiz damutu, argi baitut zer helbururekin etorri nintzen; artean ez dut nire helburua lortu, baina etengabe ikasten eta hobetzen jarraitzen dut. Horixe da, hain zuzen ere, nire motibazio handienetako bat. Beraz, hamaika aldiz hartuko nuke erabaki hori. Gustuko dut hiri hau, baita hemen bizi diren pertsona abegikorrak, hemengo bakea eta lasaitasuna ere. Nahiz eta familia faltan bota, badakit noizbait Marokora itzuli eta senideak ikusteko aukera izango dudala. Orain ez da horretarako unea, ordea; oraindik ere nire ametsa lortzen ahalegindu behar dut.

Zure ustez, zer egin behar da tokiko biztanleen eta etorkinen arteko gizarte-integrazio handiagoa lortzeko?

Nire ustez, funtsezkoa da komunitate osoak gizarte-erakundeak ezagutzea eta horietan parte hartzea. Hormairudia margotzen lagundu nuenean, zenbait euskaldun ezagutu nituen, eta lagunak egin ginen; gaur egun, 6 urte igaro badira ere, lagunak izaten jarraitzen dugu. Orain, inprimaketa grafiko ziklo bat ikasten ari naiz Mendizabalan; harreman positiboak sortzeko gune egokia dela iruditzen zait.

Gainera, hainbat gizarte-mugimendutan parte hartu dut, hala nola Gora Gasteizen eta Feministok Presten. Horietan, hiri tolerante eta bidezkoagoa aldarrikatu genuen. Gure ekarpena positiboa eta aberasgarria izan daitekeela pentsatzen dut.

BIDE BIDEANeko kultura arteko produktuen sorta bat irabazi nahi?

INKESTATXO honetan parte hartu besterik ez duzu. Ondoren, bidali ADRA Fundaziora, eta jasotako inkesta guztien artean zozketa egingo dugu.

Arabako zer herri edo hiritan bizi zara?

Gasteizen	Beste herri batean

Non eskuratu duzu aldizkaria?

ADRA Fundazioan	Interneten	Gizarte Etxeetan	Beste elkarte batean Zeinetan?

Zerbait ikasi al duzu aldizkaria irakurtzen ari zinela?

Ezer ez	Gutxi	Zerbait	Nahikoa	Asko

Egokia iruditzen al zaizu aldizkariaren edukia?

Batere ez	Gutxi	Zerbait	Nahikoa	Asko

Zerbait gehituko al zenuke?

Ezer ez	Gutxi	Zerbait	Nahikoa	Asko

Zer gehituko zenuke?

Idatzi hemen zure **izena eta telefono-zenbakia**, irabazlea baldin bazara zurekin harremanetan jartzeko:_____

Helbideak:

- **Posta-helbidea:** Lorenzo Prestamero, 3, 01013 Vitoria-Gasteiz, Araba
- **Posta elektronikoa**: kolorezkolore@adra-es.org

Inkestan parte hartuz gero, 85 euroan baloratutako ***BIDE BIDEANEKO BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUEN SORTA*** hau irabazteko aukera izango duzu:

- 2 PUNTUDUN KIKARA
- ETIOPIAKO KAFEA (INTERMÓN OXFAM)
- SAREZKO SASKI MORE ETA URDINA
- MENTAZKO TE BERDEA (EQUIMERCADO)
- EGITEKO KAKAOA (350 g)
- GARAM MASALA TXOKOLATEA (INTERMÓN OXFAM)
- TXOKOLATE ZURI ETA KAFE TABLETA (INTERMÓN OXFAM)
- OLO ETA TXOKOLATEZKO OSOKO GAILETAK
- PU-EHR TE GORRIA (EQUIMERCADO)
- PAKISTANGO TEA (EQUIMERCADO)
- PALESTINAKO DATILAK
- MARRUBI-MARMELADA (IDEAS)
- ANDEETAKO BIO KINOA (IDEAS)
- PANELA (½ kg, EQUIMERCADO)
- MALIKO HOM ARROZA (EKO)
- JUTEZKO POLTSA
- GUIRO TXOKOLATEZKO GAILETAK (INTERMÓN OXFAM)
- GEREZIZKO PIRULETAK